



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEKO ZENBAIT UDALERRITAN**  
**ESKOLA AGENDA 21 DINAMIZATZEKO LANAK EGITEKO**  
**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA**  
**(2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteak)**



## **AURKIBIDEA**

### **I. kapituluua.- XEDAPEN OROKORRAK**

- 1.- KONTRATUAREN XEDEA
- 2.- EPEA
- 3.- LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA
- 4.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
- 5.- ORDAINTZEKO ERA
- 6.- KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA

### **II. kapituluua.- KONTRATAZIOA**

- 7.- LIZITAZIO PROZEDURA ETA ERA
- 8.- ESKAINTZAILEAK
- 9.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK
- 10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA
- 11.- PROPOSAMENAK ZABALDU ETA AZTERTZEA
- 12.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK
- 13.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA
- 14.- BALDINTZAK EGIAZTATZEA

### **III. kapituluua.- KONTRATUA GAUZATZEA**

- 15.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK
- 16.- EKIPO ETA BALIABIDE PERTSONALAK
- 17.- BALIABIDE TEKNIKOAK
- 18.- BAIMENAK
- 19.- LANEN KONTROLA
- 20.- DATU PERTSONALAK
- 21.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA
- 22.- EUSKARAREN ERABILERA
- 23.- LANAK ONARTZEA
- 24.- LANAREN JABETZA
- 25.- KONTRATUAREN LAGAPENA
- 26.- KONTRATAZIO-MAHAIA

### **ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA**



## **I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK**

### **1.- KONTRATUAREN XEDEA**

Debagoieneko Mankomunitateko zenbait udalerritan (Aretxabaletan, Bergaran, Elgetan eta Oñatin) Eskola Agenda 21 dinamizatzeko lanak egitea izango da kontratu honen xede edo helburua, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera.

### **2.- KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratu honen xede diren lanak 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan egingo dira.

**2008-2009 ikasturtea:** 2008ko irailaren 1etik 2009ko ekainaren 30era arte.

**2009-2010 ikasturtea:** 2009ko irailaren 1etik 2010eko ekainaren 30era arte.

### **3.- KONTRATUAN AURREZ IKUSITAKO ZENBATEKOA. FINANTZAKETA**

1. Kontratuan aurrez ikusitako zenbatekoa 54.400 €-koa da, BEZ barne. Egiten diren eskaintza ekonomikoek ezingo dute gaingitu zenbateko hori.
2. Kontratuaren zenbatekoa Mankomunitateak 2008ko ekitaldirako duen Aurrekontu Orokorreko 3005.227.442.01.07 kontu-sailetik finantzatuko da.

### **4.- ORDAINTZEKO ERA**

Kontrataturiko zerbitzuen ordainketa, dagozkion fakturak aurkeztu eta adostasuna eman ondoren, ikasturte bakoitzean egingo da, ondorengo eran:

- Esleituriko prezioaren %15, ikasturte hasi eta hiru hilabetera.
- Esleituriko prezioaren %15, ikasturte hasi eta sei hilabetera.
- Esleituriko prezioaren %20, ikasturtea bukatu eta egindako lanak ontzat eman ondoren.

Ikasturteak irailaren 1ean hasiko dira.

### **5.- PREZIOA**

Gehienezko lizitazio prezioa 54.400 €koa izango da, BEZ barne.

Ez da preziorik berrikusiko.



## **6.- KONTRATUAREN ARAUBIDEA ETA ESKUMENA**

1.- Kontratua aholku emateko eta laguntzako administrazio-kontratua izango da eta, Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriaren arabera, Herri Administrazioen kontratueterako egun indarrean dagoen legeriak horrelako kontratuentzat ezartzen dituen arauen bidez arautuko da. Ordezko izaeraz, Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak erabiliko dira eta, horiek ezean bakarrik, Zuzenbide Pribatukoak.

2.- Kontratuaren aplikazio edo interpretazioan, berori gauzatu, aldatu, bete edo iraungitzerakoan sortzen diren auziak Mankomunitatean eskudun diren organoek ebatziko dituzte eta horien erabakiak berehalaxe bete beharrekoak izango dira.

3.- Erabaki horien aurka jotzeko ahalmena administrazioarekiko auzi-eskumenak izango du.

## **II. kapitulua. KONTRATAZIOA**

### **7.- LIZITAZIORAKO PROZEDURA ETA ERA**

Kontratuaren lizitazioa eta esleipena LEHIAKETA IREKIAREN prozeduraz egingo dira.

### **8.- ESKAINTZAILEAK**

1.- Proposamenak pertsona natural edo juridikoen, espainiar nahiz atzerritarrek, aurkez ditzakete, jarduteko gaitasun osoa izan eta Administrazioarekiko kontratuak egiteko legez ezarrita dauden baldintza orokorrak betetzen badituzte, baita ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bategina onartzen duenak, 197. art.an araututako bereziak ere, eta beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte.

### **9.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK**

1.- Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Enpresa elkartuek ezingo dute banakako proposamenik aurkeztu eta, hori egiten badute, ez zaizkie onartuko ez banakakoak eta ez elkartearnak.

2.- Proposamenak bi gutun-azaletan aurkeztuko dira, barruan ondorengo agiriak sartuta:

#### **1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

1.- 1. gutun-azalean, hauek sartuko dira:



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

a) Eskaintzailearen eta, hala balegokio, bere ordezkariaren NORTASUN juridikoa egiaztatzen duten agiriak.

Nortasuna honela egiaztatuko da:

- Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo, hala bada gokio, aldaketa-eskritura aurkeztu behar du, Merkataritza Erregistroan inskribatua, hau eska dakioken betebeharra baldin bada aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera. Ezin bazaio eskatu, jarduteko gaitasunaren egiaztatzea eraketa-eskritura edo agiriaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egingo da, horietan agertzen badira bere jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, bere Erregistro ofizialean inskribatuak; enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetakoa kideak, aski izango da Erregistro Profesional edo Komertzial batean izena emanda daudela egiaztatzea, bere estatuko legeriak betebeharrak hori eskatzen duenean. Gainerako enpresaburu atzeritarrek beren estatuan dagoen Espainiako Enbaxadak egindako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.
- Eskaintzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiria (DNI/NAN) aurkeztu behar du edo bere estatuan dagoen baliokidea.
- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak izenpetzen dituztenek DNI/NANen kopia aurkeztu behar dute, baita horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du.
- Proposamena enpresa-talde batek aurkezten badu, guztien ordezkari legalek izenpetutako agiria aurkeztu behar da gainera, non bakoitzak Aldi Bateko Enpresa Elkartean parte hartzen duela adieraziko baita, eta pertsona bat izendatuko da kontratuak iraun bitartean guztien erabateko ordezkaria izateko Administrazioaren aurrean.

**Agiri horiek guztiak orijinalak izango dira edo behar bezala egiaztaturiko kopiak.**

b) Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela izendatuki aitortzea, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bategina onartzen duenak, 15-20. artikuluetan ezarritakoaren arabera; baita ere, zergak eta Gizarte Segurantzako ordainketak eginak dituela aitortzea, martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuak ezartzen duen irispide eta eran, nahiz eta aurkeztu beharko duen Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoelako agiria, eta, hala balegokio, azken ordainagiria.

Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzeke agiria kontratua izenpetu baino lehen aurkeztu behar du esleipendunak.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### c) Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren egiaztagiriak.

Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren justifikazioa ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bategina onartzen duenak, 16. artikulua araberaz egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Finantza-erakundearen txostena.
- Lanbide-arriskuengatik kalte-ordainetarako aseguru dagoela egiaztatzen duen agiria.

### d) Kaudimen tekniko eta profesionalaren egiaztagiriak.

Kaudimen tekniko eta profesionalaren justifikazioa ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen testu bategina onartzen duenak, 19. artikulua araberaz egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Kontratu honen helburu den zerbitzuaren antzeko ezaugarriak izanik, azken hiru urteotan egindako zerbitzu garrantzitsuen zerrenda, hor sartuta berorien zenbatekoa, datak eta onuradun publiko eta pribatuak.

Gutxienez hiru ikasturteko esperientzia eskatzen da Eskolako Agenda 21 proiektuak garatzen.

Lan horiek ondo egin dituela egiaztatu behar du, organo esleitzzaileek egindako ziurtagiri bidez.

Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enprek aitortzen bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz, eta, hala balegokio, beraiek atzerrian izan lezaketen foru jurisdikzionalari uko egin diotela adieraziz.

2.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratu eta Kontratisten Erregistroen Erregelamendua onartzeko urriaren 14an eman zen 223/86 Dekretuak arauturiko Kontratista Erregistroan inskribaturik dauden enkante-eskaintzaileek 1. ataleko a) eta b) agirien ordean Erregistroaren arduradun den letratuak eginiko ziurtagiria aurkez dezakete.

## **2. GUTUN-AZALA: TXOSTEN TEKNIKOA, PROPOSAMENA ETA HOBEKUNTZAK**

2. gutun-azalean ondorengoak sartu behar dira:



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

a) **TXOSTEN TEKNIKOA.** Eskaintzaileek aurkeztu beharreko txosten teknikoak argi eta garbi zehaztu eta mugatuko du nola gauzatu Baldintza Teknikoen Agirian bigarren klausulan ezarritakoa, ahal den zehaztasun handienaz eta espezifikotasun kuantitatiboaz eta kualitatiboaz, klausula horretan ezarritako gidoiari jarraituz. Gainera, Txosten Teknikoak ondorengoak zehaztu beharko ditu:

- Lan-programa eta ekintzen kronograma.
- Proposaturiko lan-taldea, bakoitzaren zereginak, eta bakoitzak proiektu honetan izango duen arduraldi edo dedikazioa, zehaztuz.
- Aurkezturiko proposamenaren kalitate teknikoa eta antolaketazkoa abalatuko duten beste datu batzuk eta informazioa.

b) **PROPOSAMENA** bera, Klausula hauen ERANSKIN gisa agertzen den ereduari zorrotz jarraitu beharko diona, bertan eskaintzaileak eskaintzen duen prezioa ere sartuko delarik.

Lanak kontratatu eta egiteak eragingo dituen gastu guztiak sartu behar dira proposamenean jasotako prezioetan eta, zehatzago esanda, ondorengo hauek:

- Lizitazio-gastuak eta, hala badagozkio, kontratua formalizatzeko gastuak.
- Kontraturiko prestazioa betetzeko esleipendunak zertu beharreko gastuak: orokorrak, finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, probak, garraio eta bidaiak, bere ardurapeko langileen lansari eta dietak eta Baldintza hauetan ezarritako gainerako guztiak.
- Era guztietako zergak, BEZ barne, eta kontratuak iraun bitartean ezartzen edota aldatzen diren beste guztiak.

Kontzeptu horietako batere ezingo da gero aparteko kontzeptu edo kontu-sail gisa sartu.

c) **HOBEKUNTZEN ZEHAZTASUNA,** Baldintza Agirietan finkaturiko baldintzei buruz proposatuak.

## 10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Aipatu diren gutun-azal horiek Debagoieneko Mankomunitatearen Sarrera Erregistroan —Arrasate pasealekuko 5-behean, Arrasaten— aurkeztu behar dira, lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik hasita 15 egun naturaleko epean.

Enkante-eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean eskaintza bidali duela jakinarazi Kontratazio Organoari telex, telefax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek ez badira betetzen edo bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko epea igaro eta gero



## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

hartzen bada, eskaintza ez da onartuko. Bestalde, aipaturiko dataren ondoren hamar egun natural igaro eta proposamena ez bada iristen, ez da inola ere onartuko.

2.- Gutun-azalak itxita aurkeztuko dira; gainean lehian parte hartzen duen enpresaren (edo enpresen) izena eta **“Debagoieneko Mankomunitateko zenbait udalerritan Eskola Agenda 21 dinamizatzeko lanak egiteko lehiaketa”** inskripzioa izango dute.

Gutun-azal bakoitzean, gainera, edukia adieraziko da, honela:

- 1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA**
- 2. GUTUN-AZALA: TXOSTEN TEKNIKOA, PROPOSAMENA ETA HOBEKUNTZAK**

### **11.- PROPOSAMENAK ZABALDU ETA AZTERTZEA**

1.- Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean —salbu eskaintzailereren batek bere plika postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita (eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean) goizeko hamarretan irekiko dira plikak. Irekitze-ekitaldia jendaurrean egingo da, Debagoieneko Mankomunitatearen gela batean.

Ekitaldia hasteko, 1. gutun-azaletan aurkezturiko dokumentazioaren egiaztatzeak eman duena adieraziko da eta, dokumentazio horri buruz beharrezko adierazpenak egin ondoren, baztertu gabeko eskaintzaileen 2. gutun-azalak irekiko dira, eta beroriek proposaturiko eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

2.- Jendaurreko ekitaldia bukatu ondoren, aurkezturiko proposamenei buruz irizpen teknikoak emango da eta Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena egingo dio Mankomunitateko organo eskudunari.

3.- Esleipena egiten denetik hiru (3) hilabeteko epea igaro ondoren, eskaintzaileek aurkezturiko dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake Administrazioak, beraiek ez badute berriro jaso.

### **12.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK**

1.- Administrazioak, ez badu lehiaketa bete gabe uzten, onuragarriena iruditzen zaion eskaintzari esleituko dio kontratua, eta ez nahitaez bere balio ekonomikoaren arabera.

2.- Kontuan izan beharreko irizpideak, baita kontratuaren esleipenerako horien ponderazioa ere, ondorengoak izango dira:



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

a) Txosten Teknikoa eta Lan-programa: 50 puntu.

Eskatutako alderdi guztiak balioetsiko dira Txosten Teknikoan, programaren betetze-maila eta lanen metodologia Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoari buruz, nola egokitzen diren proiektuaren helburuetara, zehaztaperen maila, errealismoa eta koherentzia, egikaritu edo gauzatzeko proposatu diren epeak ere kontuan izango direlarik.

b) Proposamen ekonomikoa: 30 puntu.

Puntu bat emango da ezarritako lizitazio-tipoari buruz beheratzen den %1eko.

Printzipioz, neurrigabetzat edo ausarkeriatzat joko da onarturiko proposamen guztien beheratze-ehunekoen batez besteko aritmetikoa 10 unitatetan gutxienez gaintzen duten proposamenen beheratzea, eta hori horrela jotzeko, horretan ustez sarturik dauden eskaintzaile guztiei informazioa eskatuko zaie aurrez, baita dagokion Zerbitzuari aholkularitza teknikoa ere.

c) Hobekuntzak: 20 puntu.

Kontratu hau gidatzen duten Agirietan ezarritako baldintzen gain hobekuntza gisa har daitezkeen atalak balioetsiko dira.

Aipaturiko irizpide horietako edozein balioesteko, bereziki hartuko da kontuan, proposamena osorik hartuta, lanak behar bezala egitea ongien ziurtatuko duen bermea.

### **13.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

1.- Mankomunitateko organo eskudunak esleipena egin ondoren, esleipendunak gehienez ere hogeita hamar eguneko epea izango du, esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik hasita, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatzeke.

2.- Kontratua formalizatzeke ekitaldi berean eta hori izenpetzeaz gain, esleipendunak Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria ere izenpetuko du, horrela agertuz baduela horien berri eta ados dagoela.

3.- Kontratua formalizatzea baldintza desenkusaezina izango da edozein ordainketa bideratzeko.

### **14.- BALDINTZAK EGIAZTATZEA**

1.- Kontratua izenpetu aurretik, klausula hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko beharko du esleipendunak.



2.- Zehazki esanda, ondorengoak aurkeztu beharko ditu:

- kontratuaren esleipena jakinarazten zaionetik hamabost eguneko epean, behin betiko bermea (esleipen-zenbatekoaren %4koa) utzi duela gordailuan. Esleipendunari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hau ez bada betetzen, kontratua suntsiarazitzat joko du Administrazioak.
- lizitazio-gastuen ordainagiria.

3. Esleipenduna enpresa-multzo bat baldin bada, Aldi Bateko Batasun gisa bere eraketa legala egiaztatu beharko du, eta bere IFK-CIF ere bai.

### **III. kapitulua. KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **15.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK**

1.- Kontratuaren esleipendun den pertsona, enpresa edo Enpresen Aldi Bateko Batasuna beharturik dago hitzarturiko lanak egin eta Mankomunitateari ematera hitzarturiko epean edo epeetan.

2.- Onarturiko Baldintza Agiriari, aplikazio orokorreko araudiari eta kontrataturiko lanak bezalakoei dagozkien arau teknikoiei estu eta zorrotz jarraituz egin beharko dira lanak.

3.- Esleipenduna izango da egiten dituen lanen eta prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua betetzerakoan egiten dituen ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrekin Administrazioarentzat edo hirugarrengozat dituzten ondorioen erantzule ere, 2/2000 E.D.L.ak 213. art.an ezarritakoaren arabera.

4.- Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak urtero aurkeztu beharko du zerga-arloan eta Gizarte Segurantzarekiko dituen obligazioak ordaintzen eguneratuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

#### **16.- EKIPO ETA BALIABIDE PERTSONALAK**

1.- Kontratistak ekipo eta baliabide pertsonal egokiekin zertu beharko ditu lanak, une oro erantzunez lan horien martxaren ondoriozko premiei.

2.- Beharrezko laguntza teknikoa bilatu behar du bere kargura, hainbat lan eta espezialitatearen premiei erantzuteko behar hainbateko gaitasunarekin.

3.- Bere eskaintzan sartutako langile teknikoak ordeztuko, Administrazioak onarpena eman beharko dio, izendatu nahi den langile berriaren (edo berrien) curriculum aurrez aurkeztuta, hala eskatzen bada.



## DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

4.- Lan, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu kontratistak, berea bakarrik izango delarik lan-istripuen inguruko erantzukizun osoa.

### **17.- BALIABIDE TEKNIKOAK**

1.- Kontratistak bere proposamenean sartutako baliabide teknikoak ere jarri behar ditu eta, oro har, lanak ongi gauzatzeko beharrezko guztiak.

2.- Eskaintzan sartutako baliabide teknikoak ordeztzeko, Administrazioak onarpena eman behar du, aurrez proposamen justifikatua aurkeztuta.

### **18.- BAIMENAK**

Kontratistak bere kontura eta erantzukizunpean lortu behar ditu lanak behar bezala egiteko beharrezko baimen eta lizentzia guztiak, bere kargura izanik erakunde eskudunek jartzen dizkioten baldintza eta aginduak betetzea. Baimen edo lizentzia horiengatik tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk eskatzen direnean, horien ordainketa edo gordailua ere kontratistaren kargura izango da.

### **19.- LANEN KONTROLA**

Lanak Debagoieneko Mankomunitatearen kontrolpean egingo dira.

### **20.- DATU PERTSONALAK**

Kontratua betetzeko tratamendu automatizatua duten datu pertsonalak erabili behar baditu enpresa esleipendunak, hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (datu pertsonalen babesari buruzkoak) ezarritakoa betez egingo da.

Kontratuari esker lortu dituen datu pertsonal automatizatuak Mankomunitateak agindutakoaren arabera tratatuko ditu enpresa esleipendunak, eta ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratuan agertzen den helbururako baizik, ezta laga ere beste pertsona batzuei, nahiz eta gordetzeko izan.

Behin kontratu-prestazioa bete ondoren, trataturiko datu pertsonalak Mankomunitateari itzuli behar zaizkio, baita izaera pertsonaleko daturen bat daukaten euskarri edo agiri guztiak ere.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren xedapenak bete gabe, beste helburu baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, horien tratamenduaren erantzuletzat joko da, eta horrela berak erantzun beharko du egin dituen lege-hausteei buruz.



## 21.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratatik bere gain hartzen du langileen, erabiltzaileen, kontratisten edo beste edozeinen segurtasuna eta osasuna ahalik eta gehien ziurtatzeko erantzukizuna kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko eremuan.

Horretarako, laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen legeriatik eratorritako betebeharrak guztiak beteko ditu gutxienez, kontratuaren zerbitzura ipiniz beharrezko baliabideak, eta gutxienez hauek:

- Langileen babes pertsonalerako bitartekoak.
- Bitarteko materialen segurtasun-neurriak.
- Instalazio finkoetako segurtasun-neurriak.
- Kontratuari atxikitako langileen etengabeko prestakuntza laneko arriskuen prebentzio-gaietan, kontratu honen esparruan gauzatzeko lan zehatzetarako.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko lan zehatzak egiterakoan dituzten arriskuez etengabeko informazioa langile guztientzat, baita arrisku horiek prebenitzeko edo ezbeharrak gertatzean hartu beharreko neurriez ere.

Kontratua izenpetu aurretik, enpresa esleipendunak egin eta Mankomunitateari eman behar dio, kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko jarduerekin zerikusia duen lanpostu bakoitzaren Laneko Arriskuen Ebaluazioa.

Halaber, kontratatik Mankomunitateari emango dizkio gai honi buruzko datu, txosten, ebaluazio edo informazio guztiak, indarrean dagoen legeriaren arabera behartuta dagoenean.

## 22.- EUSKARAREN ERABILERA

### Ahozkoa:

Kontratu honen xede diren lanak egiteko esleipendunak ipintzen dituen langileek euskara ongi jakin beharko dute nahitaez.

### Idatzizkoa:

Enpresa esleipendunak dokumentazio idatzia (txostenak, oroitidazki edo memoriak, fakturak...) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko du. Lanak ale bakar batean aurkeztu beharko dira, euskarazko testua lehenengo eta gaztelaniazkoa ondoren. Azalean euskaraz bakarrik agertuko da testua.

Euskarazko testuaren kalitatea: Euskarazko testuak argia eta ulergarria izan behar du. Horretarako, behar izanez gero, esleipendunak Mankomunitatearen laguntza eta argibideak izango ditu.



### **23.- LANAK ONARTZEA**

Kontraturiko lanak entregatu eta horietan akatsik ez bada aurkitzen, Administrazioak ofizioz horiek hartu, likidatu eta, hala balegokio, aurkezturiko bermea itzuliko du.

Entregaturiko lanek ez badituzte onartzeko beharrezko baldintzak betetzen, dagozkion aginduak emango zaizkio esleipendunari aurkitutako akatsak zuzen ditzan eta bere obligazioak bete ditzan horretarako ezarritako epean, eta agindu horiek bete arte ez zaizkio lanak onartuko. Emandako epean ez baditu aginduak betetzen, kontratua deuseztatu egingo da eta fidantza galdu.

### **24.- LANAREN JABETZA**

1.- Azken lanaren eta horretarako egingo diren beste lan guztien jabetza Debagoieneko Mankomunitatearena izango da.

2.- Esleipendunak ezingo du beretzat erabili, ezta hirugarrengeoi eman ere, kontratatutako lanetako daturik, ezta osorik edo partzialki horiek argitaratu ere, eta betebeharrak ez betetzea zigor-bidez pertsegitu ahal izango da, bidegabeko jabetze gisa.

3.- Nolanahi ere, esleipenduna izango da debeku hau ez betetzeak eragin ditzakeen kalteen erantzule.

### **25.- KONTRATUAREN LAGAPENA**

Kontuan izanda kontratu honetan zein garrantzitsuak diren antzeko lanetan izandako esperientzia, kontratura esleitutako langileak eta, oro har, esleipendunaren nolakotasun tekniko edo pertsonalak, esleipendunak ez du izango eskubiderik kontratua lagatzeko, ezta kontratuaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak guztiz edo partzialki transmititzeko ere. Salbuespen gisa eta kontratua hobeto betetzeko baldin bada bakarrik, baimendu ahal izango du Administrazioak kontratuaren lagapena. Edozein kasutan ere, baimenak aurretiazkoa eta berariazkoa izan behar du.

### **26.- KONTRATAZIO-MAHAIA**

Hauek izango dira Kontratazio Mahaia osatuko dutenak:

Lehendakaria: Mankomunitateko lehendakaria, edo honek eskuordeturiko Gobernu Juntako kidea.

Kideak: Ingurumen Batzordeko lehendakaria, edo honek eskuordeturiko Batzordeko kidea.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ingurumen Zerbitzuaren arduradun teknikoa.  
Mankomunitateko behin-behineko kontu-hartzailea.  
Mankomunitateko behin-behineko idazkaria.

Idazkaria: Mankomunitateko behin-behineko idazkaria.

Arrasaten, 2008ko apirilaren 11n.

**EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen, 2008ko apirilaren 16an egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2008ko apirilaren 17an.  
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA  
Izpta.: Belen Txintxurreta**



**ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA**

..... jaunak/andreak (adinez nagusia,  
.....(e)n bizi dena eta NAN/DNI-zka. .... duena)  
.....(r)en izenean eta ordez (honek egoitza soziala  
.....(e)n eta CIF-IFK-zka. .... duelarik) zera

**AZALTZEN DU:**

**Lehena.** Ezagutzen dituela Debagoieneko Mankomunitateko zenbait udalerritan Eskola Agenda 21 dinamizatzeko lanak egiteko Administrazio Klausula Partikularrak eta Baldintza Teknikoak.

**Bigarrena.** Bere erantzukizun pean adierazten duela enkantera aurkezten den enpresa ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta, behar hainbat gaitasun juridiko eta bitarteko badituela aipaturiko lanak egiteko eta betetzen dituela kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak.

**Hirugarrena.** Esleipendun gertatuz gero, onarturiko baldintza eta betebeharrei zorrotz jarraituz egingo dituela lanak.

**Laugarrena.** Laguntza tekniko honen xede diren lanak egitera konprometitzen dela prezio honetan: .....(letra eta zenbakitan)..... euro, BEZ barne.

(Data eta sinadura)